


Airezko suziria

Zer gertatzen zaio aireari presiopean jarritakoan?

Materialak

- Soka bat, 2 m ingurukoa
- 2 aulki
- Edateko lasto bat
- Puxika luze bat
- Zinta itsasgarria



Zer egin

1. Lotu sokaren mutur bat lehenengo aulkira.
2. Sartu soka edateko lastoan.
3. Lotu sokaren beste muturra bigarren aulkira.
4. Berezi aulkiak, soka tenkatzeko.
5. Puztu puxika, eta heldu estu-estu ahotik, aireak ihes ez egiteko.
6. Mantendu puxikaren ahoa itxita, eta lotu lastoa puxikari zinta bidez.
7. Puxika lotu ondoren, askatu puxikaren ahoa. Zer gertatu da?

Zer gertatzen da?

Puxika sokan zehar mugitu da indarrez. Puxika puztean, airez bete duzu. Puxikaren azal elastikoak presioa, edo indarra, eragin dio barruko aireari. Puxikaren ahoa askatzean, airea indarrez kanporatu da, eta kontrako noranzkoan eraman du puxika. Suziri bat jaurtitzen denean, indar ikaragarria behar da lurretik altxatzeko.

Erregaiak ematen dio indar hori suzirari: erregaiak su hartzen du, suziria muturrean eztanda gertatzen da, eta suziria gorantz bidaltzen du.

